



## **ARANTZA ZULUETAREN EGOERA SALATZEKO** **Udal mozioa**

Arantza Zulueta, 2010etik hona, 3 aldiz atxilotua izan da: 2010eko apirilaren 10ean, 2011ko uztailaren 10ean, eta azkena, 2014ko urtarrilaren 8an.

Lehenengo atxiloketaren ondorioz, la 10 hilabeteko espetxealdia bete zuen, eta fidantza bat ordaindu eta gero aske geratu zen. Baina, 2011n berriz ere atxilotu zuten, eta bigarren aldiz ere behin-behineko askatasuna eskuratu zuen.

2014ko urtarrilaren 8an, hirugarrenez atxilotu zuten, beste bi abokatu eta bost euskal herritarrekin batera. Bost egunez atxilotuta egon ostean, behin-behineko espetxeratze agindua eman eta geroztik preso dago.

Azken atxiloketa EPPKren (Euskal Preso Politikoen Kolektiboa) bitartekari taldeko kide izateagatik ematen da. Taldearen sorrera testuinguru politiko berriaren baitan kokatzen da, ETAk bere ekinbide armatua utzi eta bi urtera ematen baita. Taldearen lana erabat publikoa izan da bere sorreratik, hamarnaka eragile sozial, sindikal eta politikoekin harremana izan duelarik, helburu nagusia EPPKren komunikazioa eta parte hartzea erraztea, beraien iritziak eta analisiak zabaltzea, foro sozialetan eta topaketetan parte hartzeko aukera izatea. Betiere, Euskal Herriak bizi duen gatazkaren erresoluzioa eta honen ondorioak gainditze bidean eman beharreko urratsak denon artean eztabaidatu eta lantzeko, besteak beste, Euskal Preso politikoen egoera bera.

### **Urtebete eta zazpi hilabete isolamenduan:**


Talde armatuko kide izatea leporatzen badiote ere, ez dute inoiz gertaera horregatik epaitu ezta kondenatu ere. Urtebete eta zazpi hilabeteotan ez du inolako liskarrik izan kartzelan. Kartzelako administrazioak erabilitako praktikak salatu egin ditu, zuzenbidearekin bat ez datozelako edo Arantzaren beraren eskubide urraketa eragiten dutelako.

Arantza Zuluetak urtebete eta zazpi hilabete daramatza isolamenduan, modulu berezi batean isolatuta daukate, aurretik azaldu dugun bezala, inolako arrazoirik gabe.

### **Zein da zehazki Arantza pairatzen ari den isolamendu erregimena?**

Inolako jarduerarik gabeko bizimodua, eguneroko neurri mugatzaileak, sabaia itxita duen patio batera lau orduz ateratzen dute, beste inorekin egoteko aukerarik gabe. Neurri horiekin batera, ziegan ezin ditu bere gauza guztiak izan: liburuak, arropak, garbitasuneko gauza pertsonalak, mugatu egiten dizkiote.

Isolamenduko moduluan edo modulu berezian egiten dizkieten miaketak gorputz osoa haztatuta eta ziegatik ateratzen den guztietan izaten dira. Ziegako miaketak ere ohikoak dira eta dituen gauza pertsonal apurrak lurretik botata uzten dizkiote. Hau gutxi balitz bezala, Puerto III Kartzelako isolamendu moduluan motorrek eragindako



etengabeko zarata gorgarria pairatu beharra dauka, egunero goizeko 08:00etan hasi eta eguerdiko 14:00ak arte. Telefono deiak funtzionarioz inguratuta, inolako intimitaterik gabe, egin behar ditu, eta gainera eurek erabakitzen dute noiz egin behar dituen. Komunikazio guztiak entzun eta mugatu egiten dizkiote.

Bizi baldintza anker eta umiliagarri horietaz gain, beste ondoko neurriak ere salatu nahi ditugu: Etxetik eta senide eta abokatuengandik 1.000 kilometrotara dago, eta Arantzaren auzia izapidetzen ari den egoitza judizialek 600 kilometrotara.

**Egoera honen aurrean zera adierazi nahi dugu:**

Espetxe politikak errealitate mintsu eta ahuletan du eragina, besteak beste, preso dauden pertsonengan, familiengan eta beraien eskubideetan.

Oraingoan bizi dugun moduko testuinguru batean, eta espetxe politika bizikidetzatza politika baten parte izan dadin, bere aplikazioa aldarazi behar da. ETAREN ekintzei erantzuteko hartu ziren salbuespenetako neurriek aplikatzeak ez dauka justifikaziorik. Ezinbestekoa da normaltasun estandarrak berreskuratzea.

Espaniako Gobernuaren eskuetan dago espetxe politikak berarekin daraman helburu humanizatzailea betetzea, eta legeriak berak preso dauden pertsonen egoera hobetzeko aurreikusten dituen neurriak normaltasunez eta berdintasunez aplikatzea.

Preso guztiek, edozein izanik ere kartzelan egotera eramán dituzten arrazoiak, tratu juridiko berdina izan beharko lukete, legedi eta araudi berdina ezarriz. Berau, erabat demokratikoa, justua eta ezinbestekoa den printzipioa baita.

Beraz, Arantza Zulueta ren egoera salatu eta aldatzeko asmoz, honako mozioa aurkezten dugu Udal Osoko Bilkurak eztabaida eta onar dezan:

1. Udalak Arantzak bizi duen egoera larriaren aurrean bere egonezina eta kezka adierazi nahi du, eta isolamendu egoeratik atera eta bere eskubideak errespetatuak izango diren egoera berria izan dezan eskatzen du. Hori horrela, Lekeitio ko Udal Osoko Bilkurak eskatzen du epaileak beharrezkoak diren neurriak har ditzala jarduketak beharrezko bizkortasunarekin burutzeko eta ondorioz, ahozko ikustaldirako deia egin dezala ahalik eta arinen, salbuespeneko behin-behineko espexeratze neurriari amaiera emateko.
2. Udalak "Instituciones Penitenciarias" erakundeari Arantzaren egoera alda dezala eskatzen dio: kartzelan bizi duen egoera azter dezala eta bertako administrazioak erabilitako praktikak zuzenbidearekin eta giza eskubideen bat datozela berma ditzala.
3. Udalak, egoera honen aurrean, Arantzaren senide eta lagunei bere elkartasuna adierazi nahi die.



## LEKEITIOKO UDALA

### Alkatetza

---

4. Zigor legeriak hala ezartzen duelako, Arantza Zulueta bere bizitokitik hurbilen dagoen espetxera hurbiltzea eskatzea Espetxe Erakundeari (gainontzeko preso oro moduan), gaur egungo egoerak zigor erantsia ekar ez diezaion, ez berari ezta bere senideei ere.
5. Udalak ondo ikusten du Arantza Zuluetak bizi duen egoeraren aurrean burutuko diren mobilizazioetan parte hartu nahi duten herritarren partaidetza. Egoerari aurre egiteko burutuko diren mobilizazioekin bat egiten du eta, era berean, herritarrei animatzen die beraietan parte har dezaten.
6. Udala Puerto III Kartzelako zuzendariarekin harremanetan jarriko da, Arantzak bizi duen egoera alda dezala eskatzeko eta mozio honen berri emateko
7. Arantzak behin-behineko askatasunean egon beharko luke: epaileak behin-behinean aske uzteko agindua eman zuen neurri "kautelarrak" eta fidantza bat ezarri: 3. Instrukzio Epaitegi Nagusiaren 10/2013 sumarioan, birritan atxilotu zuten Zulueta andrea: 2010eko apirilaren 14an eta 2011ko uztailaren 14an. Eta birritan (2010eko abenduaren 2ko autoa eta 2011ko irailaren 14ko autoa) Auzitegi Nazionalaren Zigor-arloko Salak ebatzi zuen bidezkoa zela Zulueta andrea behin-behinean aske uztea. Beraz, kartzelan mantentzea ez da legezkoa ezta bidezkoa ere. Ondorioz, berehala aske uztea eskatzen dugu.
8. Mozioa Udalak dituen bitarteko ezberdinen bitartez jakinaraziko zaie herritarrei, Espainiako Gobernuko Delegazioari, Justizia ministroari, Auzitegi Nazionaleko lehendakariari eta baita Espetxe Erakundeari ere.

Lekeitio, 2015ko abuztuaren 18an

EAJ-PNV

EH-BILDU